

Printzipio nagusiak

Gasteizko Hizkuntza Eskola ofiziala helduei eta gazteei irakaskuntza araututik kanpo hizkuntzak (alemana, euskara, espainiera, frantsesa eta ingelesa) ikasteko aukera ematen dien ikastetxe publiko bakarra da Araba osoan. Norbanakoaren hezkuntza eskubidea bermatu nahi duen eta askotariko ikasleagoa (adinez, formazioz, kulturaz, ama hizkuntzaz, baldintza fisikoz zein psikikoz) jasotzen duen zerbitzu publiko honek, bereziki betekizun nabarmena du hizkuntzen ezaguera hain garrantzitsua den mundu globalizatu honetan. Horrek eskatzen duen erantzukizunaz jakitun, horixe da gure iparra bai Eskolaren kudeaketan, bai arlo pedagogikoaren plangintzan bai ikasgela barruko jardueran.

Gure helburu nagusia ikasleagoa eskuratu nahi duen hizkuntzan jarduteko gaitzea da. Hizkuntza batean jarduteak ulermen eta adierazpen trebetasunak garatzea esan nahi du, eta era berean, hizkuntza horretan islatzen den kulturaren bidez, errealitatearen interpretazioetara hurbiltzea. Hortaz, hizkuntza bat ikasteak esperientzia eta aukera zabalagoetara irekitzea dakar berekin eta, hori bera, motibazio positibotzat dugu ikasleago zein irakasleagoarentzat.

Hizkuntzak ikastea, beraz, ezin dugu ulertu eduki multzo baten bereganatze huts gisa pertsonen garapen osoan eragiten duen jardueratzat baizik, eta etengabeko prestakuntza prozesuan ikasleek gure laguntza izango dute eskura.

Hizkuntza eta kultura ezberdinen elkarbizitza aberasgarria da gure ikastetxearen ezaugarrietako bat. Elkarbizitza hori eraginkorra eta ikaste prozesuan lagungarri izan dadin, tolerantzia eta elkarrekiko errespetua ezinbestekoak dira. Bide horretan, genero berdintasuna bultzatuko da ikasgelan erabiltzen diren langaien erabileran zein Eskolako arlo guztietan.

Eskola bertan diharduten pertsona guztien ekarpen, motibazio eta lanari esker bizi da: ikasleak, irakasleak eta administrazio langileak. Zenbat eta biziagoa izan denon parte hartzea, orduan eta hobeto bermatuko da bertako dinamismoa eta garapena. Ondorioz, parte hartze bideek zein erabakiak hartzeko moduek demokrazian oinarritutakoak izan beharko dute.

Gure Eskola hizkuntza ezberdinak hitz egiten eta entzuten diren gunea izatea nahi dugu. Hizkuntza ezberdinak ikasgeletara mugatu gabe, lan arlo guztietara zabaltzea nahi dugu; modu honetan, kultura eta hizkuntzen arteko zubiak eraikitzeke gai diren pertsona eleanitzak garatzen lagunduko dugu.

Euskara, ikasle zein irakasle askoren ama hizkuntza, eta beste hainbaten xede hizkuntza, gaztelania beste, eguneroko komunikazio zein administrazio hizkuntza da. Gure helburuetako bat bere erabilera bultzatzea da.

Eskolak bere baliabideak irakasleei zein ikasleei kalitatezko irakaskuntza eta ikasketa autonomia ahalbidetzeko helburuarekin kudeatzen ditu, jasangarritasuna eta ingurugiroaren babesaren garrantziaz jakitun.

Printzipio didaktikoak

Gure ikastetxearen printzipio didaktiko nagusienetako bat, ikasgela barruan eta ikasgelatik kanpo, barne-motibazioa bultzatzea da. Jakinminak eta ikasteko gogoak eragiten duen motibazioa da eta edozein ikaste prozesuren motorea denez, ezinbestekoa hizkuntzen ikaskuntzan. Izan ere, ikastunaren izaera osoari eragiten baitio.

Hizkuntza batean murgiltzearen bidez kultura ezberdin batekiko interesa pizten badugu eta ikusmuga zabaltzeko motibatzen badugu, ikasketa prozesua arrakastatsua izan dadin beharrezkoa den motibazioa garatzen lagunduko dugu. Bestalde, titulu-agiri bat eskuratzea kanpotiko motibazioa izan daiteke barne-motibazioari lagunduko diona, baina inondik ere ezingo duena ordezkatu.

Badakigu jakin hizkuntza bat norbereganatze prozesua etengabeko ikaskuntza dela, menderatze maila jakin bat egiaztatzen duen titulu-agiri bat lortutakoan amaitzen ez dena. Kontuan izanda ikaskuntza etengabekoa eta indibiduala dela, ikasleak ikasgela barruan zein ikasgelatik kanpo, bere bide propioa zuzendu ahal izateak berebiziko garrantzia hartzen du. Ikasgelan ikasleak bere ikaskuntza modu autonomoan antolatzen trebatuko duten estrategiak erakutsi nahi ditugu, eskura duen materiala (adibidez interneteko idatziak, entzungaiak, bideoak) modu egokian erabiltzeko eta etekina ateratzeko.

Ikasgelan, ikaslea xede-hizkuntzan irakurri, entzun, idatzi eta hitz egitea eskatuko dioten atzetan murgilduko da. Irakasleak planifikatu, antolatu eta gidatu egingo ditu ariketa horiek eta ikasleak zeregin aktiboa izango du informazioa bilatzen eta eskaintzen, hitzen esanahia edo gramatika arauak ondorioztatzen, ikaskideekin zein irakaslearekin komunikatzen.

Irakasleak bere planifikazioan eta klaseko parte hartzean lagungarri diren komunikazio estrategiak eskainiko ditu bai testuak ulertzeko bai lortzen ari den mailaren arabera ahoz eta idatziz xede-hizkuntza erabiltzeko. Helburua da ikasgela xede-hizkuntzan komunikatzeko beharra pizten duen gune bizia izatea.

Ikasturte amaieran zertifikazioa lortzeko egiten den ikasleen ebaluazioan (ikasle ofizial nahiz libreak) elkarlanean aritzen gara EAEko gainerako Hizkuntza Eskoletako irakasleekin; talde lanean erredaktatzen dira hizkuntzaren menperatze azterketak ebaluazioa modu baliagarri eta fidagarrian burutu dadin. Proba bateratuak administratu eta ebaluatzen ditugu hautagaiei ahalik eta ekitaterik handiena eta emaitzetan ahalik eta gardentasun handiena lortzeko helburuarekin. Zertifikazio gabeko mailetan (A1 eta B11) ikasketa prozesuaren ebaluazioa jarraia da. Bestalde, bai maila hauetan bai zertifikaziodunetan, ikasgelako ebaluazioa aholkularitza lantzat hartzen dugu, ikasleari autoebaluatzen eta autozuzentzen lagunduko diona.

Printzipio hauek aurrera eramateko, edota eztabaidatu eta berraztertzeko, ezinbestekoa da irakasleen formazioa eta koordinazioa; zentzu honetan, ikastetxeak ahalegina egingo du irakasleen ordutegi berez estuan, formazio eta koordinazio saioak txertatzeko, nahiz eta ikastetxearen ordutegi zabalak ez duen errazten koordinazio saioen antolaketa. Ekimen koherenteak lortzen baditugu eta proiektu bateratuen bidez irakasle bakoitza motibatzen eta babesten badugu (bai formazioan, bai ikasgeletako gaitegietan edo ikaskuntzarekin lotutako ospakizunetan) irakasle goaren, administrazio langileen eta, azken batean, ikasle goaren gogobetetasunean lagunduko dugu.

Nolako Eskola izan nahi dugu? Hezkuntzari dagokionez

- irakasle zein ikasleen aberastasun pertsonalean eragingo duena.
- eleaniztasuna bultza eta aniztasuna errespetatuko duena.
- kultura eta erlijio ezberdineko gizakien elkarbizitza baketsuan lagunduko duena.
- jarrera demokratikoak bultzatuko dituena.
- genero berdintasunari kontu egingo diona.
- aukera berdintasuna eragingo duena.
- jasangarritasuna errespetaraziko duena.

Ikaskuntzari eta irakaskuntzari dagokienez

- ikasteko motibazioa eskainiko duena.
- etengabeko ikaskuntzari babesa eskainiko diona.
- ikasleari ikasketa autonomorako tresnak eskainiko dizkiona.
- ahal duen neurrian, eta gainerakoen eskubideak urratu gabe, ezindu fisiko, psikiko edo zentzumenen desgaitasunen bat duten ikasleen behar zehatzei erantzungo diona.
- ikasleari ikasgelan rol aktibo nagusia emango diona.
- ikaslea ikasi nahi duen hizkuntza modu aktiboan erabiltzen gaituko duena.
- ikasketa prozesuan baliabide eta tresna egokiak eskainiko dituena.
- ikasketa prosezuean ikaslearen ardura bultzatuko duena erregularatasuna, konstantzia eta parte hartzea indartuta.
- Talde lana, lankidetzeta eta berdinen arteko ikaskuntza bultzatuko duena.
- ikasketa prozesuan, orientatzaile eta motibatzaile lanean, irakaslea babestuko duena.
- sail didaktiko ezberdinen artean jokamolde bateratua bultzatuko duena.
- irakaslegoaren koordinazioa eta formazioa ahalbidetu eta bultzatuko duena.

ebaluazioari dagokionez

- ebaluazioa irizpide gardenekin, egokiekin eta zuzenekin aplikatuko duena.
- ebaluazioa formazio elementutzat hartuko duena.
- azterketak denontzat baldintza egoki eta berdinetan administratuko dituena.

Ikastetxearen antolaketari dagokionez

- informazio truke egokiaren bidez, ikastetxeko arlo guztietako kideen parte hartzea ahalbidetuko duena.
- hezkuntza komunitateko arlo ezberdinetako partaideen lankidetzeta ahalbidetuko duena.
- erabakiak era demokratikoan hartuko dituena.
- talde lana indartuko duena.
- denok eskolaren parte garela sentiarazten lagunduko duena.
- langile berrien integrazioa bermatzen ahaleginduko dena.
- hornikuntza egunean izaten eta behar bezala zaintzen ahaleginduko dena.

- irakaslegoari kalitatezko hezkuntza garatzen lagunduko dioten baldintzak eta bitartekoak eskainiko dizkiona.
- baliabideak neurrian erabiliko dituena.
- inguruko edo lan arloko beste erakunde batzuekin harremana izango duena.
- hezkuntza komunitatearen eskubideak eta betebeharrak bete eta betearaziko dituena.